


ZERBITZUEN ESTATISTIKA. JARDUERA PROFESIONALAK ETA ZERBITZU LAGUNGARRIAK 2014

Euskal AEn 115.760 pertsona aritu ziren 2014an jarduera profesionalen eta zerbitzu lagungarrien sektorean, erkidegoko guztien % 11,8

Gora egin zuten, aurreko urtearekin alderatuta, establezimendu-kopuruak, fakturazioak eta enpleguak.

Eustaten datuen arabera, jarduera profesionalen eta zerbitzu lagungarrien sektorean 115.760 pertsona aritu ziren lanean 2014an (erkidegoko ekonomian dauden enpleguen % 11,8 dira), eta 8.318 milioi euro fakturatu zituen. Sektoreak 28.251 establezimendu zituen 2014an, aurreko urtean baino % 1,1 gehiago. Fakturazioak % 3,3 egin zuen gora, eta enpleguak, berriz, % 0,8, aurreko urtearekin alderatuta.

1. grafikoa: Jarduera profesionalen eta zerbitzu lagungarrien sektorearen negozio zifraren eta langileen banaketa jarduera azpisektorearen arabera (milioi €). 2014



Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen azpisektorean Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak, Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak, Ikerketa eta garapena, Publizitatea eta merkatu-azterketak eta Bestelako jarduera profesionalak biltzen dira. Fakturazio-bolumenari dagokionez azpisektorerik esanguratsuena da, bolumen osoaren % 65,8 baita. Langile-kopurua Administrazio-jardueren eta zerbitzu lagungarrien azpisektorekoa bezain handia da ia. 2014an bilakaera positiboa izan zuen: % 3,5 egin zuen gora fakturazioak eta % 0,3 enpleguak.

Azpisektore honetan Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak eta Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak nabarmentzen dira, azpisektoreko enpleguaren % 70 eta fakturazioaren % 80 hartzen duten aldetik. Bi adarretan egin zuen gora fakturazioak aurreko urtearekin alderatuta, % 4,3 eta % 3,2, hurrenez hurren. Enpleguari dagokionez, aldiz, Jarduera juridikoen eta kontabilitatekoen adarrak enplegua sortu zuen 2014an (2013ari

ZERBITZUEN ESTATISTIKA. JARDUERA PROFESIONALAK ETA ZERBITZU LAGUNGARRIAK 2014

dagokionez % 1,0eko igoera), eta Arkitektura eta ingeniartzako zerbitzuen adarrean % 2,0 egin zuen behera lanean ari zirenen kopuruak.

Azpisektore honetan aurreko urtearekin alderatuta bilakaera positiboena izan duen adarra Bestelako jardura profesionalena izan da (hemen sartzen dira diseinua, argazkigintza, itzulpengintza eta interpretazioa eta albaitaritza). Adar honetako negozio-zifra % 8,2 igo zen eta lanean ari zirenen zifra % 5,8, nahiz eta 2014an azpisektorearen fakturazioaren % 7 eta enpleguaren % 10,5 bildu zituen.

Bestalde, **Administrazio-jardueren eta zerbitzu lagungarrien azpisektorean** alokairu-jarduerak, enpleguarekin lotutako jarduerak, Bidaia-agentziak eta Bestelako zerbitzu-jarduerak sartzen dira, eta negozio-zifra osoaren % 34,2 hartu zuen. Azpisektore honek ere bilakaera positiboa izan zuen, eta negozio-zifrak % 2,9 egin zuen gora eta enpleguak % 1,2.

Azpisektore honetan, bere garrantzia dela eta, Bestelako zerbitzu-jardueren adarra nabarmentzen da (Segurtasun eta ikerketako jarduerak, Eraikinetako eta lorezaintzako zerbitzuak eta Enpresentzako jardura lagungarriak), eta azpisektoreko enpleguaren % 80 eta fakturazioaren % 55etik gora bildu zen bertan. Aurreko urtearekin alderatuta, adar honek gora egin zuen, igoera neurtua izan bazen ere: negozio-zifran % 0,4koa eta langile okupatuen zifran % 0,1ekoa.

Enpleguarekin lotutako jardueretan izan da hazkunde-tasarik handiena, bai azpisektore osoa bai jardura profesional eta zerbitzu lagungarri guztiak kontuan hartuta: negozio-zifra % 14,3 hazi da eta langile okupatuena % 11,5.


1. Koadroa. Aldagai nagusiak jardura-sektoreka (A86) (mila eurotan). 2014

	Landun-kopurua			Negozio-zifraren zenbatekoa		
	Balioa	Osoaren %	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	Osoaren %	Urteko aldakuntza (%)
Jardura profesionalak eta zerbitzu lagungarriak	115.760	100,0	0,8	8.318.269	100,0	3,3
Jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	57.358	49,5	0,3	5.476.283	65,8	3,5
Jardura juridiko eta kontabilitatekoak	23.212	20,1	1,0	2.322.437	27,9	4,3
Arkitektura eta ingeniartzako zerbitzuak	16.851	14,6	-2,0	1.936.891	23,3	3,2
Ikerketa eta garapena	7.071	6,1	-0,8	434.307	5,2	3,4
Publizitatea eta merkatu azterlanak	4.183	3,6	0,9	396.669	4,8	-3,0
Beste jardura profesional	6.041	5,2	5,8	385.979	4,6	8,2
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	58.402	50,5	1,2	2.841.986	34,2	2,9
Alokairu jarduerak	2.435	2,1	-6,5	396.009	4,8	4,1
Enpleguarekin uztartutako jarduerak	8.211	7,1	11,5	213.877	2,6	14,3
Bidaia-agentziak	1.847	1,6	-0,9	643.375	7,7	5,3
Bestelako zerbitzu-jarduerak	45.909	39,7	0,1	1.588.725	19,1	0,4

Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Jardura profesionalen eta zerbitzu lagungarrien sektore osoko **establezimenduen tamaina** aztertuta, ikusten da mikroenpresak zirela (10 langile baino gutxiago) establezimenduen % 94,6, eta fakturazio osoaren % 43,9 eta langile okupatuen % 37,3 bildu zuten. Enpresa txikiak, berriz, (10-49 langile) establezimenduen % 4,3 ziren, eta enpleguaren % 20,9 bildu zuten eta fakturazio osoaren % 27,8 fakturatu zuten. Eta, azkenik, 50 langile edo gehiago dituzten enpresek (enpresa ertain eta handiek) fakturazio osoaren % 28,3 fakturatu zuten, lanean ari ziren pertsonen % 41,8 zuten eta establezimendu guztien % 1,1 ziren.

2. Grafikoa: Jarduera profesionalen eta zerbitzu lagungarrien sektoreko Euskal AEko establezimendu-kopurua, langile okupatuak eta negozio-zifra, enplegu-geruzaren arabera. 2014



Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Lurraldeak aztertuta, ikusten da hiru lurraldeetan bilakaera positiboa izan zuela sektoreak 2014an, bai fakturazioan bai enpleguan. Bizkaiak EAEko salmenta guztien % 61,4 zuen, eta Jarduera profesionalen eta zerbitzu lagungarrien sektorean % 3,0 egin zuen gora negozio-zifrak eta % 0,7 enpleguak. Gipuzkoak 2013an baino % 5,2 gehiago fakturatu zuen, salmenta guztien % 26,0 izanik, eta langile okupatuen zifrak % 0,4 egin zuen gora. Araban % 1,8 igo zen enplegua eta % 0,9 egin zuen gora negozio-zifrak, salmenta guztien % 12,6 izanik.

2. Koadroa: Aldagai nagusiak, lurraldeka (mila eurotan). 2014

	Euskal AE	Δ%	Araba/Álava	Δ%	Bizkaia	Δ%	Gipuzkoa	Δ%
Establezimenduak (kopurua)	28.251	1,1	3.847	1,3	15.026	0,9	9.378	1,3
Langile okupatuak (kopurua)	115.760	0,8	16.166	1,8	67.600	0,7	31.994	0,4
Negozio-zifrak	8.318.269	3,3	1.049.324	0,9	5.109.285	3,0	2.159.660	5,2
Hornidurak	2.126.824	9,2	243.563	4,3	1.386.078	11,3	497.183	6,2
Langile gastuak	3.344.370	0,6	465.270	0,3	1.971.211	0,3	907.889	1,2
Kanpo-zerbitzuak	1.846.287	-2,1	221.906	-4,9	1.103.436	-4,2	520.945	4,1
Ekitaldiaren emaitza	1.038.470	31,4	126.196	12,9	625.294	39,8	286.980	24,1

Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
 Zerbitzuen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago